

Konpost analisisien interpretazioa

<i>Parametroa</i>	<i>Ohiko balioak</i>	<i>Oharrak</i>
Hezetasuna, %	30-60	Parametro honek konpostaren hezetasun maila neurtzen du. % 60 baino gehiagoko hezetasuna aireztapen gutxiegi adierazgarria izan daiteke, egokitzaila falta delako (1. irudia). % 30etatik beherako balioek konpostaren egonkortze urria isla dezakete, hezetasuna falta delako (2. irudia).
Materia organikoa, materia lehorreko %	30-60	Konpostaje-prozesuaren ondoren materia organiko bezala dagoen materia lehorraren ehunekoa dio. Normalean % 30etatik beherako balioek diote konposta nahasita dagoela hondarrarekin, lurrarekin, errautsekin edo beste konposatu mineral batekin. % 60 baino gehiagoko balioek hondakinak aski konpostatuta ez daudela diote.
C/N erlazioa	10-20	Konpostaren Karbono eta nitrogeno kantitateen arteko zatidura da. Oso altua bada konpost heldugabea dela dio eta landareentzako nitrogeno-erabilgarritasuna murriztu daiteke.
pH	6,5-8,5	Konpostaren garratzasunaren edo alkalinitatearen neurria da. Balioak altuegiak badira usainak eta amoniako-galerak sortu daitezke.
Konduktibitatea, $\mu\text{S}/\text{cm}$	500-4.000	Konpostaren gatz disolbagarrien neurria da. 4.000 baino gehiagoko balioek deshidratazio-efektua sortu dezakete landareetan, batez ere substratu bezala erabiltzen bada konposta loreontzietan, landareontzietan eta abar, proportzio altuetan (3. irudia). Garantzi gutxiago du lurzoruan ongarri bezala zabaltzen bada, bereziki eskualde hezeetan (4. irudia).
Nitrogenoa, %N	1,0-2,5	Elikagai mineralen balioak, abiapuntuko biohondakin (lorategiko eta sukaldeko hondakin proportzioa), konpostaje prozesuaren (industrialia edo autokonpostajea) eta laginaren galbahetzearen (5. eta 6. irudiak) menpe daude, neurri handi batean.
Fosforoa, %P ₂ O ₅	0,40-1,2	
Potasioa, %K ₂ O	0,50-1,3	

Konpostaren metal astunen eduki maximoa, 506/2013 E.D.aren arabera

Metala	Kontzentrazio mugak, mg/materia lehorreko kiloko		
	A Klasea	B Klasea	C Klasea
Kadmioa	0,7	2	3
Kobrea	70	300	400
Nikela	25	90	100
Beruna	45	150	200
Zinka	200	500	1000
Merkurioa	0,4	1,5	2,5
Kromo (osoal)	70	250	300
Kromo (VI)	Ez detektagarria metodo ofizialaren arabera	Ez detektagarria metodo ofizialaren arabera	Ez detektagarria metodo ofizialaren arabera



1. irudia. Etxeko konposta hezeegia



2. irudia. Etxeko konposta lehorregia



3. irudia. 2595 $\mu\text{S}/\text{cm}$ konduktibitatea duen konpost proportzio desberdineko nahasketak eta sustrato komertzial (Control) baten arteko geranio eta begonia hazkuntzen konparaketa.



4. irudia. Etxeko konpostaren erabilera baratzean ongarri bezala.



5. irudia. Itxura oneko etxeko konposta, galbahetu gabea.



6 irudia. Itxura oneko etxeko konposta, gabahetua.